

## SARTZEKO PROZEDURA

Gure Estatutuek eta Barne Erregimeneko Araudiak arautzen dute erakunde bat Koordinakundean sartzeko prozedura.

Kide izan nahi duten erakundeek Estatutuan ezarritako ezaugarriak bete behar dituzte (27. eta 28. artikulua – III. kapitulua). Informazio hori gehiago garatzen da Barne Erregimeneko Araudian (II. titulua – I. kapitulua).

GGKE elkartu gisa sartzeko jarraitu beharreko urratsak eta prozedura adieraziko dira ondoren:

### II. kapitulua - Sartzeko prozedura (RRI)

1. Koordinakundeko kide izateko, estatutueta, bereziki III. KAPITULUAN, adierazitako betekizunak eta baldintzak bete beharko dira.

2. Sartzeko eskatzeko dokumentazioa.

Erakunde elkartu gisa sartzeko eskaera formalizatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Aurkezpen-gutuna eta sartzeko eskaera, Koordinakundeko Lehendakariari zuzendua, honako hauek berariaz jasota:

- Eskaera egin duen GGKEaren gobernu-organoen sartzeko erabakiaren borondate esplizitua.
- Koordinakundearen estatutuak eta RRI onartzea.
- Koordinakundearen jokabide-kodea eta irudiak onartzea.
- Batzar Nagusian onetsitako barne-politikak eta -protokoloak onartzea.

b) Estatutu erregistratuen kopia, bai eta memoriaren ere. Memoria horiek erakutsi behar dute legez onartu zenetik gutxienez bi urte daramatzala Euskadin parte-hartze aktiboa izaten.

c) Gobernu Batzordea edo Patronatua osatzen duten pertsonen zerrenda eta erakundean kargu exekutibo nagusia duenaren izena.

d) Azken bi urteetako jardueren memoria. Bertan, honako hauek jaso beharko dira: eskaera egin den unean zein gizarte-eraldaketarako hezkuntzako, eragin politikoko, garapenerako lankidetzako eta/edo laguntza humanitarioko proiektutan parte hartzen ari den zuzenean, erakundeak garapeneraren eremu espezifikoan esperientzia frogatua duela erakusteko.

e) Erakundeko idazkari-kargua duen pertsonaren ziurtagiria, honako hauek jasotzen dituen:

- Erakundearen egoera, eskaera egin den egunean, duen gizarte-oinarriari dagokionez (bazkide boluntarioak, langileak, laguntzaileak...), eta bere lankidetzaz-jarduerak babesten dituzten kolektiboak eta gizarte-taldeen dagokienez, hala badagokio.
- Baliabide materialei eta finantzaketari buruzko oinarriko datuen zerrenda, memoria ekonomikoaz gain, eta azken ekitaldiko urteko kontuak.

f) Koordinakundeko bi erakunde elkartutako arduradunek egindako jatorrizko gutunak, erakunde eskatzailearen eta dagokion Ordezkaritzaren hautagaitza Batzordearen aurrean bermatuko dutenak, lurralde horretan parte hartzen dutela egiaztatzeko.

Baldintza hori betetzeko, berariaz adieraziko da erakunde sinatzaileek behar adina ezagutzen dituztela erakunde eskatzailea eta hura zuzentzen dutenak; garapenerako lankidetzaren arloan erakunde horrek egiten dituen jardueren berri dutela, eta uste dutela, zentzuz, Koordinakundeko kide izateak dakartzan konpromisoari erantzuteko moduan dagoela erakunde eskatzailea.

g) Jokabide-kodeari buruzko inkesta bete.

h) Egoki iriztitako beste edozein informazio osagarri.

### 3. Sartzeko eskaeren tramitazioa:

a) Arestian aipatutako dokumentazio hori Koordinazio Orokorreko pertsonari bidali beharko zaio posta ziurtatu bidez, jaso izanaren agiriarekin, edo bulego nagusian.

b) Eskaera jasotakoan, eskatutako agiriak erantsi direla egiaztatuko da. Hala ez bada, erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio 20 eguneko epea duela aurkezteko edo edozein akats zuzentzeko.

c) Espedientea osatu ondoren, Gobernu Batzordeari helaraziko zaio, eta hark Barne Koherentziako Batzordeari helaraziko dio, Jokabide-kodean ezarritako baldintzak betetzeari buruzko lehen txostena egin dezan.

d) Barne Koherentziako Batzordeak aldeko txostena eman ondoren, Gobernu Batzordeak eskaera egin duen GGKEari baieztatuko dio Koordinakundeko lantaldeetan parte hartu behar duela kide diren lurraldean, gutxienez 6 hilabetez. Horretarako, informazioa eskatuko dute Koordinakundeko dagokion Ordezkaritzan.

e) 6 hilabeteko epe hori igarota, Barne Koherentziako Batzordeak 2. txostena egingo du, eta, horretarako, sartzeko eskatu duen GGKEak Euskadiko GGKEen Koordinakundean parte hartu izanaren ziurtagiriak eman beharko ditu, talde teknikoak eginak. Txosten hori Gobernu Batzordeari bidaliko zaio, eta hark, ohiko bileran, onartzeko edo ukatzeko proposamenaren azken txostena egingo du, GGKE eskatzaileari, Batzarrari, hala badagokio, edo prozesuan interesa duten GGKEei jakinarazteko.

f) Probaldiaren ondoren erakundeak erabakitzen badu bere hautagaitza hurrengo batzarrean ez aurkeztea, automatikoki utziko dio lantaldeetan parte hartzeari.

g) Gobernu Batzordeak eskaera onartzen badu, hurrengo Ohiko Batzar Nagusian eramango du proposamena, eta erakunde eskatzailearen ordezkariek gonbidatuko ditu bertara joan daitezten. Nahitaezkoa izango da bertaratzea eta Batzarrean aurkeztea. Gainera, sartzeko eskatu duten erakundeei buruzko laburpen-fitxak bidaliko ditu Batzarreko materialetan. Erakunde elkarturen batek sartzeko eskatu duten erakundeei buruzko alegazioren bat egin nahi badu,

Gobernu Batzordeari helarazi ahal izango dio, Batzarra egin baino 15 egun lehenago.

h) Gobernu Batzordeak sartzea onartzen ez badu, idatziz jakinarazi beharko die erakunde eskatzaileari eta hura aurkeztu zuten GGKEei zergatik ez den onartu. Ez onartzeko erabakiaren aurrean, erakunde eskatzaileak eta hura aurkeztu zuten GGKEek eskaera berriz egin ahal izango dute Batzar Nagusian. Prozedura hori aukeratuz gero, aipatutako erakundeek Gobernu Batzordeari jakinaraziko diote, eta Gobernu Batzordeak horren berri izan ondoren, hurrengo ohiko Batzarraren gai-zerrendan sartu beharko du, kasuaren inguruabarrak laburbildurik azalduta, eta erakunde eskatzaileari bertaratzeko gonbidapena egingo dio. Batzar horretan, halaber, Batzordearen txostenean jasotakoaren berri emango da.

#### 4. Batzar Nagusiak sarrera-eskaerak onartzea:

a) Batzarrean, eskaera bat onartzeko edo baztertzeko hartutako erabakiaren berri emango du Gobernu Batzordeak, eta, beharrezkoa bada, eztabaida egingo da, eta, hura bukatutakoan bozketa egingo da. Eztabaida hasi aurretik, erakunde eskatzaileak eskubidea izango du Batzarrari hautagaitza aurkezteko tarte bat izateko.

b) Bozketa isilpekoa izango da, eta arau orokorraren arabera, Batzarrean dauden erakundeen 2/3en botoa beharko da erabakiak hartzeko.-

c) Onartu ondoren, Koordinakundeko lehendakariak eskatzaileari jakinaraziko dio eta haren ordezkariekin bilera egingo du Koordinakundearen lanetan sartzeko moduak zehazteko, eskubide osoko erakunde elkartu gisa.

5. Koordinakundearen **erakunde laguntzaile** gisa sartu nahi duten erakundeek, elkartekide gisa jarduten duten erakundeentzat adierazitako prozesu bera jarraituko dute, aldez aurretik sei hilabetez parte hartzeko baldintza izan ezik.